

LUMA BERRIEN AZTARNAK
LAURI URKIZA



Irudia:
Kristina Fernandez

NOR DA

Lauri Urkiza

Ez denborarik galdu paperetan bilatzen; ez naiz agertzen. Interneten eta erregistroan ere ez nago. Axal ipini diot neure buruari goitizena. Arakistain, nire etxeari lotzen nauen sustrata da. Hori naiz, Axal Arakistain; naizena naizenean.

Laura Urkiza

Espirala

¡Se morirá usted, sí, se morirá, aunque no lo quiera;
se morirá usted y se morirán todos los que lean mi
historia, todos, todos, todos sin quedar uno ¡Éntes
de ficción como yo...

Miguel Unamuno

Aspergarrirantz jotzen duen arratsalde tarte honetan, kafetegira sartu da gizona. Gabana kendu eta pertxa batean esekiz, hotzetik babesten duen berokta erantziz, barrara abitu da.

- Hutsa, mesedez.

Bitartean gizonak erlojuari begiratu dio. Egunkaria hartu, azalari gainbegiratu eman eta atzera toki berean utzi du. Berrito ordulariari begiratzean, hogeita hamar segundo iragan dira arratsaldearen ordu tarte honetan, dirudienez, luze eginda dagoen gizonarentzat.

Badakar tabernariak kafea. Utzi du kikara mostradore gainean eta gizonak ordaindu bezainbat ekarri dizkio itzulerako txanponak ere.

Kafetegira sartu aurretik, gizona, arratsalde tarte hau bizitu zezakeen izenen baten bila ibili da hor kanpoan, hotzetan. Edonorena izan zitekeena eta oraindik jaberik ez duenaren izena topatzen.

- Juan Jose Garaita Onanetxe etorri al da? - Tabernariak sorbaldak altxa eta buruari eraginez, adierazi dio ez duela berak horrela deitzen den inor ezagutzen.

Bertan elkarrekin geratuta zeuden. Juanjoren esanetan bere etxea bezalakoa duen taberna honetan. Bera; azukrerik gabeko kafe hutsari koliaratxoarekin eragiten ari dena, Antonio Barranda Garika da eta, ea ez den norbait etorri beregatik galdetzen ba, zuzendu da. Inork ez dio entzun. Gure gizonari hala ere, ez dirudi erantzunik eza axola zaionik. Kafetxoa bertara hurreratuz, mahaitxo baten aurrean eseri da.

Itxoiten dago orain gizona. Juan Jose Garaita Onanetxe jauna noiz azalduko. Orain berak ere badauka han egoteko motiborik, zain baitago; eta, nor ez?

Ez da batere kontu eroso zain egotea. Asmatutako izenaren jabea agertuko zaio lakoa, oraindik esperoan, beste hiru ordu laurden igaro dira gizona mahaitxo aurrean eseri denetik. Haren zain baitago bera, horretan, egonean.

Juan Jose Garaita Onanetxe izenari lotzen zaion gorputza zer nolakoa izango ote den hasi da gizona pentsatzen. Pizten doako eduki behar duen piuraren gaineko jakingura. Ahaleginak eta bi eginda ere, ezin izan dio izenari aurpegirik jarri. Jarrera bai; izen horren jabeak bere gain daroan jokaera lortu du irudikatzea. Nolanahi ere, gauza guztien gainetik, Anttonek, begiak nahi dizkio ikusi.

Kafetegira sartu berri den gizonak ere berokia erantzi du. Astrakanezko jantzi urdindua soinetik kendu eta, azukrerik bako kafe hutsa eskatu dio honek ere tabernariari.

Antonio Barranda Garikarengatik galdetu dionean, hura bai, hura hango mahai hartan dagoenari seinalatuz, bidali du barmanak berarengana. Zer gertatu jakin-minez edo, *Far West*-eko pelikuletako bakeroa balitz moduan, ukalondoak barra gainean jarrita euren begira han geratu da. Edonola ere, arin aspertu denez, postura aldatu, mugikorrekin jolasean hasi eta harexeri ipini dio geratzen zitzaion arreta guztia. Oso-osoa bilduta ere, apurra dena.

«Arratsalde on, Antton». Ezpain hegaletan dakarren gorako keinuari ezin eutsirik jarri zaito Juan Jose Onanetxe aurrez aurre.

Ez du Antonio Barranda Garikak sortu berri den egoera surrealista hau ulertzen. Uste txarreko uanean harrapatuta, bere burua non ezkutatu ez dakielarik, lotsatuta dago. Bere asmakizun hutsa izanda, berak softutakoa; kontua hain muturrera zelatan joan zaiton ba, damutzen hasta da.

«Ni, zure asmakizun? Ja! Baten bati otuko zitzaion galduta nengilela, eta ibili be ibiliko nintzen apurren bat, baina hortik eta hainbeste esatera...».

Eroen mundura daroan jolasari, edo mugak gainditu duen jokoari ez deritzo jada brometako kontua. Gero eta zurrumbilo itxura handiagoa dauka. Antton horretaz behintzat jabetu denez, inotz hasi ere egin behar ez zuen txorakeria motz-motzean moztu beharrean aurkitzen da.

«Erratuta, bai ibiliko nintzen Antton.

»Horrexegatik bada be behingoz, beharko nuen ba, izenen bat».

Juanjoren begiak ikusteaz batera, zutitu eta jarri da Antonio Barranda Garika, urdinduta. Aurrean Juan Jose Garaita Onanetxe irri luzez karenka daukalarik, behingoz Anttonek, espiralaren hartan duen kokapenez ohartu da eta, horixkara jo du. Azkenean ere onartu du bere tokia.

Juan Jose Garaita Onanetxek bitartean, betaurrekoak kendu, bibotea atzaparrekin orraztu eta sortu berri duen Anttoni benetan eskertu dio izenen eta berben alegiazko mundurako hain dotore batalatu izana. Hain zuzen ere, izenen asmatzaileari.

Antza, tabernariak bazituen belarriak kontu guztian jarriak. Anttonek duen aurpegira zuzen-zuzenean begiratu orduko, lehertu da barre algaraka.

Gorritu nahi ezean hango lanak behin amaituta, gabana jantzi eta atera da Antton kale gordinera. Azkenean ere, hainbeste espero ostean, bada eta sortzaile baten izenaren jabea. Badoo erregistrora.